

# Hura ez da lekua

TESTUA

Oier Guillan  
Asier Sarasola

IRUDIAK

Idoia Beratarbide

MUSIKA

Ander Fernandez





**Idoia Beratarbide** (Oiartzun, 1977), pintorea eta ilustratzailea. Hainbat liburu ilustratu ditu haur eta gazte literaturan, pinturaren arloan *Memoria zulatua* izenekoa du erakusketarik berriena. Arte eszenikoetan zuzenean pintatzen zein arropak eta eszenografiak sortzen egin du lan.

**Oier Guillan** (Donostia, 1975), idazle eta kazetaria. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia eta antzerkiaren arloan, azkenak *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009) eta *Herio heroi/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010). Poesia beste arte diziplinekin uztartzen egin du lan hamaika eszena lanetan.

**Ander Fernandez** (Donostia, 1981), musikaria. Musika-sortzaile gisa Rouge Elea, Dejabu eta Metrokoadroka taldeekin egin du lan, argizatzaile-sortzaile gisa ere Anakrusa taldearekin. Kakahuete musika taldeko kidea da.

**Asier Sarasola** (Lezo, 1976), idazle eta itzultzailea. *Poems, everybody, poems!* (batBada, 2010) liburua argitaratu du. Poesia ikuskizun ugarietan parte hartutakoa da testuak idazten, errezitatzen eta antzezten. Kakahuete taldeko kantaria da.

**Iñigo Ortega** (Pasaia, 1975), aktorea. *Hura ez da lekuako* pertsonaia nagusia den Saltzailea hezur-haragitu du. Metrokoadroka kolektiboko kide gisa izateaz gain, Anakrusa taldeko kide sortzailea ere bada.

*Hura ez da lekua* proiektua Metrokoadroka kolektiboaren baitan sortu dute, Jabi Barandiaran aktorearen laguntzarekin.

LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2012ko urria

© Txalapartak  
© Creative Commons  
Metrokoadroak OBRARENA

TXALAPARTA ARGITALETXEA E.M.L.  
San Isidro, 35-1A  
78 Posta-kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 703 934  
Faxa 948 704 072  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

ISBN  
978-84-15313-37-3

LEGE GORDAILUA  
NA. 1.957-12

txalaparta



KORRIKA KULTURALAREKIN ELKARLANEAN abiatu genuen *Hura ez da leku*a proiektua, 2011ko neguan. Ordutik, Euskal Herriko hamaika plaza ezagutu ditu poesia, antzerkia, pintura eta musika zuzenean uztartzen dituen ikuskizunak.

Hutsetik abiatu genuen, talde lanean oinarriturik, *Hura ez da leku*aren sorkuntza. Mahai gaineko lana egin genuen lehenik parte hartu genuenok, kafeek eta garagardoek lagundutako solasaldi luzeetan bilatu genuen adierazi nahi genuen 'hura': zorientasunaren gaia topatu genuen horrela, zentzu zabalean ulertuta. Zer diote gutaz zorientasunari buruz ditugun ideiek? Zer-nolako gizartea daramagu txertaturik hitz horren azpian?

Entsegu-lokaleko orduak etorri ziren ostera, inprobisazioak egiten hasi eta ikuskizunaren hezurdura osatzen joan zen. Pertsonaia berezi baten egun baten

lekuko izango ginen oholtzan, galtze bidean den lanbide bat duena: atez ateko saltzailea. Zer-nolako zoriontasuna da pertsonaiak 'saldu' nahi duena? Eta harago joanda, zer-nolako poz uneak bizi ditu bere egunerokotasun ezkutuan? Pertsonaia horren laguntzaz ikertu genuen bere 'zirku intimoa' deitu genuena, norberak izan lezakeena: ezkutuan, intimitasunean, nola edo hala ikasitako zoriontasunaren ideia orotatik harago aske sentiarazten gaituzten keinu txiki-handiak. Eta zirku intimotik abiatuta, umorea, gordinkeria, edertasuna, kabaret poetiko baten kutsua hartu zuen ikuskizunak.

Metrokoadroka kolektiboaren gerizpean sortu genuen lana, ohiko moduan zenbait arte diziplinaren arteko elkarrizketa bilatuz, haien artean sor daitezkeen kodeak baliatuz. Bizirik egon da *Hura ez da lekua* denbora honetan, emanaldi bakoitzak eskatzen duen aldatzeko, moldatzeko eta ikertzen jarraitzeko grinarekin. Horregatik heldu gara orain liburu honetara: ikuskizunak zabaldutako gogoetak zertzelada ugari utzi ditu gure gogoen bazterrean, publikoak lagundu digu haiek osatzen eta sak on-tzen, eta molde berri batez jarraitu nahi izan dugu lanean. Gogoetan sakontzen batetik, arte diziplinen arteko harremana errotzen bestetik, disko-liburu moldean oraingo honetan.

Pertsonaiaren egun baten lekuko ginen oholtzan musikaria, pintorea, poetak. Lekukotza hori ahots

bakarrean bildu dugu liburu honetan, fikzio berri batean. Ikuskizunaren logikari eta ordenari jarraitzen dioten audioak ere bildu ditugu cdan, irakurleak hala nahi izanez gero hura entzuteko bigarren aukera bat ere izan dezan: testuan txertatu ditugu audioak entzuteko proposamenak, lan berri hau ere bizirik egon dadin.

Ez da liburua, ez idaztea, ez ilustratzea ere, taldean lantzeko euskarririk errazena. Baina sormena ulertzeko dugun moduak, teatroak berak irakatsi digunak, horretan tematzera garamatza. Horregatik eskertu nahi dizugu zuri ere, irakurle-entzule-ikusle horri, zure konplizitatea eta irakurriz sortzeko duzun gaitasuna.

Zure zirku intimoa, gurea, da lekua.

ANDER, ASIER, IDOIA, IÑIGO ETA OIER.

Ez nagoen lekuetan nago,  
baina hura ez da lekua.  
Izan behar genuena gezurra da  
baina ametsa ez da lekua  
utopia ez da lekua  
hura ez da lekua.  
Lekua ni naiz  
nire bizitzaren lekukoa naizelako,  
lekua ni naiz,  
bizi naizen lekua naizelako.  
Izan behar genuena gezurra da  
hau da lekua.



ITZULIKO NAIZ, SEKULA EGON EZ NAIZEN LEKUETARA





BADAKIT ZER ESAN NAHI DUDAN, baina ez dakit nola.  
Badakit zer ikusi nahi dudan jendearen aurpegian.  
Baina ez dakit nola. Aurpegi zoriontsu bat marraz-  
teko gai izan. Edonoren isla izateko gaitasuna duen  
marrazkia egin. Aurpegi bat, keinu bat. Baina ez  
dakit nola.



Hemen nago, eta ez dakit airea nola bete. Etxea. Zer egin aire honekin guztiarekin. Behinola k onpartitua izan den airea. Badira jendez beterik nahi nituzkeen uneak, baina ez orain. Ez hemen. Bakar-dadearen antza du isiltasun honek. Pisutsuegia da maite duzun norbaitek desagertzean uzten duen airea, arnastu gabe geratu diren segundoak, ahoskatu gabe geratu diren berbak. Katalogo bat egin liteke pertsona bakoitzak absentziari aurre egiteko asmatzen dituen estrategiekin. Hauxe da nirea: eguna eztarrian trabatzen zaidanean inguruari erreparatzen diot, neure buruari *non nago?* galdetu eta idatziz jartzen dut, marrazkiekin lagunduz letren herrena. Okupa naiz aire honetan, inguruko xehe-tasunak zerrendatzen saiatzen naiz marrazki, zirri-borro, oroitzapen zedarritu bakoitzean. Unearen mapa bat egin haiekin. Mapak ez direlak o bidea aurkitzeko egiten, non galdu zaren jakiteko baizik.

Eta ni hemen galdu naiz. Zurea den absentzia honetan, osaba. Hitzez eta marrazkiz betetzen saiatzen naiz arnastu gabe utzi duzun hustasuna. Zurea, gurea. Kaie-reko zuriuneak elkarrekin izandako elkarrizketak oroitzuz betetzen ditut. Iritsiko dira ostera jendez mukurutuko diren momentuak, etorriko dira bueltan aire hau besteren baten gorputzean igurzteko aukerak. Baina ez orain, ez hemen. Irudi bat proiektatu paperean oroitzapena buruan nola, norbere bertsio bat izan arren beti, interpretazio bat. Marrazkia, oroitzapena.



Aurpegi zoriontsu bat marraztu, hori dut azkenaldian xede. Zure aurpegiarekin saiatzen naiz tarteka. Ez nizun argazki aski atera, ez zintudan bideoan grabatu lo zinelarik, ez. Oroitzapenak besterik ez ditut, eta ez dira nahikoa. Memoria txarra da nirea. Zer edo zerekin zalantzan nagoenetan, jarriko zenukeen aurpegia irudikatzen saiatzen naiz. Eta ez dut lortzen. Egongelako argazki albumetara jotzen dut horrelakoetan, gauza bat edo beste kontatu banizu jarriko zenukeen keinuaren bila. Bai, hau da ezezagun batekin larrua jo dudala kontatzerakoan jarriko zenukeena. Baina argazki guztietan zara hogeitaz gazteagoa, eta orduko behakoa duzu haietan.

Galdu egin dut zure azken urteetako begi-gezia, osaba. Eta ez dakit zer koloretakoa den zure absentzia.





## NON NAGO?

Ni baino lehenagoko ohea  
eta mesanotxeak,  
forma biribilak dauzkaten bi ateko armairua  
eta komoda ispiluduna.

Altzarion egurrean zainek marraztuak,  
asaldurazko aurpegiak:  
alemaniar espresionismo hutsa.

Pitzadurak igeltsuzko sabai zurian:  
errepide mapa bat,  
urruneko ibaiena,  
odol-hodiena,  
begiak bertara iltzatu  
eta nahi adina zerumuga bistaratzekoa.

*Krak!* kexaka oinpean zurezko zorua;  
ni baino lehenagokoa da,  
larruzkoen antzeko sofak ere bai.

Marraz-mahaia argiak leihoan barrena zehaztutako espazioan,  
koloreetako arkatzak gainean,  
ilaran jarriak lan bila bezala  
–zedro oholek arkatz usaina dute  
gorriagoa adabegietan  
urdinagoa azalerago–,  
paper zuriaren meatzera noiz deituko zain,  
ez dagoena azaleratzeko.

Beti saiatzen naiz marraztu ezin diren g auzak  
marrazten. Alegia, beti iristen naiz berandu marraz-  
tera: irudikatu nahi nukeen pertsona falta denean,  
paperean jaso nahi nukeen paisaia dagoeneko alda-  
tu denean. Fakultatean ez ziguten sekula erakutsi ez  
dagoena marrazten. Isiltasuna, adibidez. Akats larria.

## NON NAGO?

Hiltzea balego sikiera behin  
isiltasuna entzunda

«the rest is silence»,  
Danimarkako printzeak  
azken hatsa baino lehen,  
elezaharra inork ahotan har zezan

eta ahoa zabalik zerraldoak;  
matraila lotu beharra  
nolabait itxuratzearren

baina ezpain horituez  
esan zenizkidanen oihartzuna, orain  
nire ahotsean dabil, osaba

gainontzekoan, isiltasuna;  
kalekoen elkarrizketa zatiak,  
txio gosetuak,  
argindarraren kirrinka,  
jolasen zalaparta,  
gailu mekanikoen urruma,  
zamalanan burrunba,  
auzokoaren irratiairen tonu baxuak,  
sirena-hots larriak,  
kanpai-kolpeen hizkuntza,  
oin-hotsak eskaileran,  
dei galdu bat

gainontzean, isilkeria;  
une honetako soinu-mapa,  
entzunezko menua,  
lengoaien katalogoa,  
zaraten alfabetoa

hitzak, isiltasuna ordenan jartzeko,  
esanahia izan dezan,  
esaten ez dakizkidanak entzun arren

isiltasuna  
paper zurian,  
pintzel kolorgean,  
esku geldian,  
begi itxietan,  
ez zatozen irudian

gainontzekoan,  
mutu,  
margoak

Bizitza nori kontatu eduki. Berdin dio zer lortzen duzun bizitzan, ez baduzu nori kontatu. Horregatik zinen hain garrantzitsua? Zu baitzinen nire publikoa, nire etsaia, nire lubakia. Gustatzen zitzaizun nik laneko kontuak etxera ekartzea, eta zu irrikan ikus-tea niretzat arnastea zen halaber. Gustatzen zitzaizun jendearen, munduan gertatzen zenaren berri jasotzea. Lan ederra omen zen nirea, gorroto dudan arren: tabernaria. Bizirik irauteko lan bat, marrazkigile lanbidea mantentzeko, tabernari ogibidea: bizitza muturraren aurrean pasatzen uztearen ofizioa.

Denetik ikusi behar izan dut barraren beste aldetik. Topiko bat dirudi, baina hala da, eta ez da batere erromantikoa. Taberna muturreko egoeren bidegurutzea, elkargunea ere bai tarteka. Berdin topatuko duzu jendea ospakizunean zein amildegirik beltzenean. «Baina hor dago bizitza, hor dago benetan kalean



gertatzen dena», esaten zenuen zuk. Eta eguerdiro bezperakoak kontatzen nizkizun, kafea hartu bitartean: ni balkoian lehen zigarroa erretzen, zu sukaldean entzuten. «Nahi nuke zure lekuan egon», esaten zenidan, eta nik amen, bai zera, edo bestelakoren bat. Herriaren alde borrokan jardun ostean herria gorrotatzen bukatuko nuela esaten nuen isekaz, jasanezina zitzaidala egunero hainbeste aurpegi ikusi behar izatea, atsegina izan beharra, belarri-aurpegia jartze hori. Zuk barre egiten zenuen «belarri-aurpegia...!», eta barre eginarazten zenidan, belarri bat imitatuz. «Bizitza serioegi hartzen duzu», esaten zenidan. Nola egingo dut neure buruaz barre orain?

Nola marraztu aurpegi zoriontsu bat?





Argazki zaharrak aurrean paratu eta zu marrazten saiatu naiz. Zoriontsu marraztu nahi zintuzket. Baina ez dut gogoratzen zer den aurpegi zoriontsu bat, ez dakit zer forma eman. Ezer ez dago poza baino beldurgarriagorik, irribarre kulunkaria behartzen duen masailezurra baino gauza izugarriagorik. Agian horregatik ez nizun askorik begiratzen aurpegira, zoriontsua uste zintudalako berez, eta horrek izua sortzen zidalako. Orain ezin dut oroitu bizitzaz ase mintzo denik, ez zu, ez beste.

Saiatu naiz. Baina.





s  
a  
n  
a  
s  
i  
u  
r


Jolas baten modura hasi zen lehenik. Musuzapietan, fakturen atzealdeetan, postal *free*etan eta egunkarietako zuriuneetan marrazturik ekartzen nizkizun bezperako bisaia. Haien istorioak hobeto uler zenitzan, barraren ertzean aho txikiz edo ezpain betez kontatuak errepikatzeko lagungarria zelakoan jendearen potreta. Begi zabalik entzuten zenituen marrazki haiek, entzumenarekin ikusten zenituen haien kezkek edo negarrak. Zureak ez ziren oroitzapenak oparitzen nizkizun funtsean, bizipen berrien gose zinelako. Etxean. Ezgai. Karpetatxo urdin batean gordetzen zenituen aurpegi haiek ostera, txukun atondurik, bakoitzari bere data jarri, «oraindik ez didazu ekarri zoriontsua den inoren marrazkirik», esan zenidan behinola kezkatu, «horrelakoak dira denak, edo horrela marrazten dituzu zuk?».

Nola marrazten da aurpegi zoriontsu bat?




kattalin

Neure burua hirigunea da; autoan harrapaturik nago, gasolina amaitzear. Kaosa. Agian horregatik dut horren beharrezkoa ordena. Berdin zait nolakoa, baina ordenaren bat. Etiketak. Zerrendak. Objektu bakoitzaren leku zehatza apalean. Gauza guztiak, paper guztiak, eskuz idatzitako ohar guztiak gordezten ditut, gero gorde ditudala oroituko ez dudan arren. Jakin salbu daudela denak, inoiz bilatuz gero haiek aurkitzeko aukera izango dudala. Oroitzape-nak edo marrazkiak, iraganera bueltatzeko zebrabi-deak balira bezala.



Poema bat idatziko dut edo masturbatu egingo naiz? Poema bat idatziko dut edo etxea garbitu sakonki? irakurri berri dut Angelica Liddellen liburu batean. Gustatu zait. «Marrazki bat egin ala masturbatu», esan nezake nik.





Etxea txukunduko dut.

Etxea. Begien aurrean dudana garbitu, zarata bisual oro kendu, lan egin ahal izateko. Marrazten hasi ahal izateko. Azkenaldian zailagoa egiten zait etxeko ordena eramatea, edozein ordena. Antola daitezke, adibidez, usainak? Zure gauza guztiak daude bertan oraindik. Bizarra kentzeko aparra komunean. Makulua. Adinaren lurrina. Azalean itsasten den urteen hats hori, goragalea ematen duena, behinola hura inork okupatu izanagatik.

## NON NAGO?

Isilik ireki ohi dut zure arropa dagoen armairua,  
urte-sasoia ren arabera janzteko antolatua

isilik esku artean zure jaka baten besoa hartu,  
burua sartu janzki esekien artean,  
erabili gabeko maindireen kontakizuna sudurreratzeko

isilik besoari erortzen utzi eta  
atea itxi mundura atzera etorritz,  
eta zazpiak eta laurden dira edo  
ordu biak goizaldean,  
errazten jarraitu behar dut  
edo ahaztu zait egiteko nuena

Irribarre egiten saiatu naiz ispilu aurrean, eta ez dut lortu. Patetikoa naiz. Patetikoa naiz?

Nola marraztu daiteke aurpegi zoriontsu bat? Saiatu naiz eta ez dut lortu. Gauza gehiegi dut inguruan, gauza gehiegi eta ahots gutxiegi, aurpegi

gutxiegi, helduleku gutxiegi. Tabernako lanean beti desiratu izan dut isolamendua. Orain, berriz, izua sortzen dit bakartasun erabatekoak.

Musika jarri. Trazuaren dantza. Scarlett Johansson Tom Waitzen bertsioak kantatuz. *Anywhere I Lay My Head*. Sekula halakorik. Ez dakit gustatzen zaidan ala ez. Tabernan lan egiteari ez diot dena txarra ikusi izan: musikaz asko ikasi dut. Ez baita erraza orduen soinu banda nekatu gabe, gehiegi errepikatu gabe betetzea. Eta une bak oitzari bere doinua topatzea: kafe orduari, jende asko dabilen tenoreari, neronek lanez gainezka nagoenean dudan erritmoari, bikote abaguneei. Etxerako kutsatu zaidan ohitura da: musika bat sukaldean aritzeko, beste bat dutxatzeko, esnatzen joateko edo hautsa kentzeko. Unean unekoa.

Eta ez dakit gustatzen ote zaidan Johanssonen hau.

Baina ez da musikarena soilik, lanari ikusi izan dizkiot alde on gehiago ere. Badira jende gutxi dagoen une mortuak zeinetan irakurtzen hasten naizen, eta zirriborroak egiten. Erik Satieren *Gymnopédie 1*, kafe bat atera, zigarro bat piztu. Eta egon, eta izan. Ezer ez zait egiten une horietan bezeroren bat sartzea bezain gorrotagarririk. Lehen hain intolerantea ote nintzen jendearekin? Eta hala ere jendea marrazten dut, beste ezer baino gehiago haiek dira naizena. Begiak, espresioak. Pertsona bakoitzaren arima harrapatzean dago koxka. Kontua ez

da erretratuak haien antza izatea ala ez; espresioa, norberaren aurpegi betea harrapatzea baizik.

Zoriontsuak al gara aurpegiak beste aldeko biztanleak?

«Jakin nahi nuke nolakoa den jende horren aurpegia bakarrik dagoenean, inork ikusten ez ditue-nean, inork ikusten ez dituela uste dutenean», esan nizun behin. Zenbat maskara kabitzen dira aurpegi bakarrean? Egunero jokutzen ditugun rolen artean, zein da norberaren benetako aurpegia? Edo maskara bilduma bat besterik ez gara?

«Gehiegi pentsatzen duzu», erantzun zenidan, eta barre egin nuen.

## NON NAGO?

Aristotele, nor bestela,  
aurkituko duzue fisionomiaren hastapenetan

aurpegi borobilak,  
karratuak,  
hirukiak,  
erronboide formakoak,  
trapezoide formakoak;  
espresioaren geometria

bestelako ugaztunen antzeko aurpegiak,  
zakur,  
zaldi,  
katu,  
bele,  
tximu,  
suge antzekoak;  
espresioaren zoologikoa

kopeta,  
bekainak,  
begiak,  
sudurra,  
masailak,  
ahoa,  
matrailezurra,  
kokotsa,  
ilea,  
belarriak;  
espresioaren anatomia

zimurrak,  
begi-zuloak,  
orbainak eta orbanak,  
pinportak,  
oreztak,  
garatxoak,  
kisteak;  
espresioaren medikuntza

zuria,  
okre horia,  
kadmio-horia,  
kadmio-gorria,  
Indiako gorria,  
itzal errea,  
beltz ketua;  
espresioaren kromatismoa

erretratua;  
espresioaren artea

nolako bihotza, halako aurpegia;  
espresioaren herri-jakintza